PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Lintzoaingo Hobia

Lintzoaingo Hobia

Erroibarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Erroibar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Presoetako gehienak
goiz atxilotu zituzten
baina talde txiki batzuk
Esteribarreraino heldu ziren.
Erroibar pasa nahi zuten Frantziara heltzeko.

Frankistek Erroibar
eta Lintzoain artean dagoen Oianederren
2 preso atxilotu zituzten.
Preso hauek mugatik oso gertu zeuden.

Frankistek 2 preso hauek
han bertan hil zituzten.
Litzoaingo bizilagunek
haien gorpuak herriko hilerrira eraman zituzten
bertan lurperatzeko.

Orain arte Lintzoaingo hobia
San Kristobal Gotorlekutik
urrunen dagoen hobia da.

2017. urtean
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
hobia desobiratu
eta 2 presoen gorpuzkiak berreskuratu zituzten.

Ikusi zuten eskuak elkarrekin eta itxirik zituztela
eta horregatik uste dute
hil zituztenean eskuak loturik zituztela.

Oraindik ez dakite nor ziren 2 pertsona horiek.
Herriko zenbait pertsonak diotenaren arabera
preso horietako bat Bizkaikoa zen.

Hemen Lintzoaingo hobiaren argazki bat ikus dezakezu:

